

CHROMEBOOKEN ERABILERA ARAUAK LH6

1. Ordenagailua hezkuntza-tresna da eta ez da jolas edo jokoetarako edota hezkuntza-eremuaz kanpoko beste erabilera batzuetarako erabiliko.
2. Ez sartu txat edo mezu elektronikoetan baimenik gabe.
3. Ez ezabatu ordenagailuko historiala.
4. Ez zabaldu, erabili edo aldatu zurea ez den fitxategirik.
5. Datu pertsonalik ez zabaldu: telefono-zenbakia, helbidea, pasahitza, edota beste pertsona batzuen pasahitzak.
6. Soilik webgune fidagarrietan sartu.
7. Babestu ordenagailuaren kamera.
8. oreretaikastola.eus lan-domeinua ikastolaren jabetzakoa da eta honek ikastolak zehaztutako arauak errespetatzea dakar.
9. Erabili beti hizkuntza egokia eta txukuna, errespetuzkoa, komunikazioetan. Hizkuntza desegokia darabien komunikaziorik jasoko bazenu irakasleari jakinarazi eta ez ezabatu mezua.
10. Ikastolako profiletik bidali eta jasotako komunikazio guztiek hezkuntza-gaiei lotuta egon behar dute.

ARAU-HAUSTEAK ETA ONDORIOAK

1. Ordenagailuaren erabilera arauak puskatzen badira, ondorengo prozedutra jarraituko da:
 - a. 1. aldian, jakinarazpena.
 - b. 2. aldian, egun batez ikastolan ordenagailua erabiltzeko eskubidea galduko du.
 - c. 3. aldian, aste betez ikastolan ordenagailua erabiltzeko eskubidea galduko du.Ordenagailuz egin beharreko lanak paperean egin beharko dira eta etxean, ordenagailura pasa.
2. Ordenagailua erabilpen desegoki baten ondorioz matxuratzen bada, ordenagailua erabiltzeko eskubidea galduko da matxura konpondu bitartean.

CHROMEBOOKEN ZAINKETA ARAUAK

1. Ordenagailuaren zainketaren arduraduna, ordenagailuaren jabea bera da.
2. Kontuarekin ibili ordenagailua ireki eta ixterakoan eta ez eutsi ordenagailua pantailatik.
3. Ez utzi besteei zure ordenagailua eta eta ez hartu besteenak.
4. Ordenagailua erabiltzeari uztean behar den bezala gorde.
 - a. Gela barruan ordenagailua mahaiko saskian gorde eta ez apalean.
 - b. Ordenagailua alde batetik bestera eramaten duzunean funda erabili.
 - c. Ordenagailua motxilan gordetzean kontuz ibili. Ez lurrera bota, kolpatu egin liteke eta.
5. Ez utzi ordenagailua mahai bazterrean. Ongi kokatu mahai gainean.
6. Ordenagailuaren gainean ez jan eta ez edan.
7. Egunero bateria kargatuta ekarri ordenagailua ikastolara.
 - a. Ez kargatu bateria nahikoa badu.
8. Garantiaren etiketa ez kendu.
9. Ordenagailua matxuratuz gero, irakasleari jakinarazi
 - a. Ordenagailuaren konponketa ikastolak bideratuko du.
 - b. Matxura erabilpen desegokiagatik bada, konponketaren gastua familiak ordainduko du (pantaila aldaketa 30€, bateria aldaketa 48€...)
 - c. Matxuraren jatorriaren arabera ordezeko ordenagailua utziko da, edo ez.